

PAZKO ALDIKO III. DOMEKEA (B)

GIZARTEAREN MUINA, LAN DUINA – JORNADA DIOCESANA POR EL TRABAJO DIGNO

SARRERAKO OHARRA

Arratsalde on / Buenas tardes. Egun on guztioi. / Buenos días.

Jesus heriotzatik biztu eta gure artean dala ospatzeko batu gara. Bere mahaiaren inguruan esertzeko, bere ogitik jateko eta bere hitza entzuteko gonbidapena jaso dogu.

Gaur, gizalegezko lanaren aldeko Eleizbarrutiko eguna ospatuko dogu. Eskerrak emongo deusaguz Jainkoari, euren lanaren bitartez gizon eta emakumeei duintasuna emoten deusent eta guztion ona sustatzen dabent gizon eta emakumeent lanagaitik.

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

Sarrerako abestia:

Buru danaren agurra: Jesus heriotzatik biztu eban Jainkoaren Espiritua, zuekin.

URAZ TXIPRIZTINDU

Irakurleak: Eukaristia ospatu aurretik, Elizako kide izatea ekarri euskun Espirituaz igurtzi ginduezan bateo-eguna gogoratu eta barritu egingo dogu.
(Uraz txipriztindu eta, bitartean, bateo-abestia kantatu)

Abestia:

Buru danak: Jainko ahaltsu eta errukitsuak askatu gaizala pekatutik eta Eukaristia honen ospakizunaren bitartez, bere Erreinuko otorduan parte hartzeko duin egin gaizala. Amen.

AINTZA

OHARRA IRAKURGAIEI

Apostoluek ilusinoz eta pozez ekin eutsent Jesus Berbiztuaren Barri Ona hots egiteari. Haregaz bat egitearen esperientzia pozgarria bizi izan eban eta horri esker zalantza eta bildur guztiak gainditu ebezan. Gaur, geuri dagokigu Barri Ona iragarten jarraitzea.

Erantzun-salmoa:

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Buru danak: Ezinbestekoa dogu otoitz egitea, Jesusen Espirituak gidatu gaizan. Egin daigun otoitz batez be gure gizartearen beharrianak asetzeko lanean diharduen gizon eta emakumeen alde.

Egin daigun otoitz esanez: *Emon, Jauna, zure Espiritua*

Irakurlea

- Eleizaren alde; Jesusen Espirituak sendotu gaizan gizon eta emakume guztiek lan duina egiteko eskubidearen alde borrokatu daigun. () **EGIN DAIGUN OTOITZ. E: *Emon, Jauna, zure Espiritua.***
- Sistema ekonomiko bidegabearen ondorioak jasanda, asko eta asko dago langabezia edo behin-behineko landa dau. Behar daben laguntza solidarioa eskaini deikiegu () **EGIN DAIGUN OTOITZ. E: *Emon, Jauna, zure Espiritua.***
- Lan-munduko gizarte erakundeek, segurtasun, lan eta familientzako bizimodu hobearen bila, guregana heldu diran langileen eskubideak defendatu daiezan. () **EGIN DAIGUN OTOITZ. E: *Emon, Jauna, zure Espiritua.***
- Alkartearentzat hain beharrezko diran zaintza eta zerbitzuek dagokien balio eta autorpena jaso daie eta gure herrian senidetasuna hedatzeko bide izan daitezat. () **EGIN DAIGUN OTOITZ. E: *Emon, Jauna, zure Espiritua.***

Buru danak: Jainko gurea, entzun gure otoitza, zure Espirituaren gidaritzapean, danontzako zuzentasun eta bakea jadetsi daiguzan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA OPARIEN ESKAINTZARI

Makina bat eskuk egin ditu altaran aurkeztu doguzan ogi eta ardaoa. Bizi eta batasunaren iturri, zuzentasun eta duintasunez egindako lanak dauan balio santuaren sinbolo, izan daitezala guretzat,

AGURREKO OHARRA

Zauriak erakutsi eutsezanean ezagutu eben ikasleek Jesus. Jesus Berbiztua gaur egun langabezia eta esplotazioak jota bizi diranengan ezagutzeko gauza izan gaitezala.

EBANJELIOAREN ETA LAGUNGARRI IZAN DAITEKEZAN EDSaren IDAZKIEN INGURUKO AZALPENAK

Hona hemen azalpen batzuk Ebanjelioari eta Eleizaren Doktrina Sozialari buruz. Homilian gizalegezko lanaren aldeko egun honen inguruko aitamenak sartzeko baliagarri izan daitekez.

EBANJELIOA

Lukas 24, 35-48

Agerraldien kontaketek Jesusen agerpena zalantza guztiak uxatu beharko leukiezan ezaugarri nabarmenez azaltzen badabe be, kontaketa beretan ikusi daiteke zenbat zailtasun izan eben gizon eta emakume hareek aurrean ebena Jesus zala ikusteko.

Eure fedea esnatzeko, Jesusek ez deutse aurpegira begiratzeko eskatzen, esku eta oinetara begiratzeko baino; bi bider egiten dau eskari bera: ikusi daiezala kurutziltzatuaren zauriak; heriotzaraino emondako maitasuna izan daiela beti begi-bistan. Ez da mamua. "Neu naz"; Galileako bideetan ezagutu eta maitatu izan daben berbera.

Gaur Beragaz bat egiteko, ebanjelioetan aditzera emoten jakun ibilbidea egin behar dogu: gaixoak bedeinkatzen eta umeak ferekatzen ebezan eskuez, ahaztuen bila atara eta bide luzea egiteagatik nekatuta dagozan oinez jabetu; Haren zauriak eta nekaldia langabeziaren, jasaten daben esplotazioaren edo euren duintasuna ezerezten eta bortxatzen daben lanak egin behar izatearen eraginez sufritzen dagozan gizon eta emakumeengan antzeman. Orain mundu honetan nekaldia jasaten diharduan eta, Aitak, berbiztuta, bere erreinua eraikitzen jarraitzeko bizi eta itxaropen iturri dan Jesus bera da.

ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALETIK HARTUTAKO IDAZKIAK

Laborem Exercens, 3. zenb. - S. Joan Paulo II.a

Giza lana, giltza da, beharbada gizarte auzi ororen oinarritzko giltza, benetan gizon eta emakumearen onaren ikuspuntutik ikusten saiatzen bagara. Eta, barrero be eten barik agertzen dan eta gero eta korapilatsuago dan gizarte auziaren konponbidea –edo mailaz mailako konponbidea- «gizatasun gehiagoko giza bizitzari» begira bilatu behar badogu, orduan giltzak, hau da giza lanak, garrantzi funtsezko eta erabakigarria hartzen dau.

Fratelli Tutti, 162. zenb., Francisco Aita Santua

Lana gizarte bizitzaren ukaezinezko alderdia da, ogia irabazteko bide izateaz gainera, hazkunde pertsonalerako, hartu-emon sanoak eratzeko, nork bere burua aditzera emoteko, doeak banatzeko, munduaren hobekuntzan ardurakide sentitzeko eta, azken batean, herri lez bizitzeko bide be bada.

Patris corde, 6. zenb., Francisco Aita Santua

Lan egiten dauan pertsona, edozein izanda be bere lana, Jainkoaren beraren lankide da, inguratzen gaituan munduaren sortzaile bihurtzen da apur bat. Gure sasoiko krisiak, krisi ekonomiko, sozial, kultural eta espiritualak, dei egin leuskigu danoi lanaren esanahi, garrantzi eta beharrianaz jabetu gaitzan inor kanpoan geratuko ez dan “normaltasun” barria ahalbideratzeko.

Frantzisko Aita Santuaren homilia (2014.eko martxoaren 20a)

Lana, hain zuzen be, zuzenean dagokio pertsonari, bere bizitzari, bere askatasunari eta bere zorionari. Lanaren balio nagusia, gizon eta emakumearen ona da, ikuspuntu horretatik egiten daualako, bere jarrera eta adimen-, sormen- eta esku-gaitasunakaz. Horregaitik, lanaren xedea ez da ekonomikoa bakarrik, ez dago irabaziarri begira bakarrik, bere helburua, batez be, gizakiari eta bere duintasunari lotuta dago... Eta lanik ez bada, duintasun hori zauritu egiten da. Langabezian egon edo azpienplegua dauanak gizartearen bazterretan amaitzeko, gizarte bazterketaren biktima bihurtzeko arriskua dau.